



Ereñotzun prezio libreko etxebizitzak egingo dituzte, ez babes ofizialekoak

EREÑOTZUN, babes ofizialeko etxeen ondoan, babes ofizialeko beste 16 etxebizitza egiteko asmoa dagoela azaldu zen atzoko Kronikan. Ez dira babes ofizialeko etxeak izango, prezio libreko etxeak baizik. Konstruktoreak eremu horretan 4 billa bifamiliar egiteko asmoa zuen, baina orain Udalari baimena eskatu dio billak egin beharrean prezio libreko 16 etxebizitza egiteko. Udalak, Plenoan baiezkota eman dio eskariari. ||

Maider Martin tenista hernaniarra Espainiako txapeldun, infantil mailan

MAIDER Martin tenista hernaniarrak Master Nazionala irabazi berri du. Txapelketa hilaren 12an jokatu zen, Zaragozan. Finala Silvia Garcia tenista madrildarraren aurka jokatu zuen, eta bi setetan irabazi zion. Lehenengo set-a nahiko berdindua izan zen, baina Maiderrek 7-6ko emaitzarekin irabaztea lortu zuen. Bigarren goa erosoagoa izan zen, eta alde haundiagoarekin irabaztea lortu zuen, 6-3. Aurtengoa urte bikaina izan Maiderrentzat. /7

❖ PUZGARRIAK

Puzgarriak gaur Atsegindegin

Haurrentzako puzgarriak izango dira gaur Atsegindegiko aterpean, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. ||

❖ BERTSOLATA

Bertso jaialdia gaur Biterin

Bertso jaialdia izango da gaur Bertso Eskolak antolatutako Bertsolataren barruan. Amets Arzallus, Andoni Egaña, Xabier Legarreta, Igor Elorza, Sustrai Colina eta Unai Gaztelumendi ariko dira bertsotan. Joxe Luis Urdangarin izango da gai jartzailea. Gaueko 22:30etan, Biterin. Sarrerak ordu erdi lehenago jarriko dituzte salgai. Bestalde, abenduaren 31n erronda egingo dute, Ohitura zaharrrak taldeko kideekin batean, arratsaldeko 18:00ak aldera, herrian barrena. Urtarrilaren 3an, bertso bazkaria izango da Errioguardan. Sarrerak salgai daude Aralar eta Tripontzin, 25 eurotan. ||

GAUR KRONIKAN

Euskal selekzioaren aldeko manifestazioa /2

Laburrak/2

Azpiegituren inguruko eztabaidarako proposamena /3

KIROLAK: pelota, futbola, tenisa, arrauna.. /6-7

Eskelak /7

Goiz Eguzkiko kideak Nafarroan barrena /8



Gazte Asanblada urte bukaera girotzen

URTEA behar bezala bukatzeko ekintza ezberdinak antolatzen ari da Gazte Asanblada. Gabon bezperan truke azoka antolatu zuten eta azoka xumea izan arren jendea gerturatu zen eta izan zen etxera gauzak eraman zituenik. Bestalde, abenduaren 31n, mus txapelketa izango da arratsaldean Gaztetxean. Mahatsak jan ondoren, 01:00etan, urteroko kazerolada egingo dute, eta goizaldean, euskal kantu kalejira egitea eta salda hartzea pentsatu dute. ||

IRRIGOENEA OKINDEGIA
EGUNEROKO OGI BEROA
GAZTELOKO PASTELAK eta TARTAK ENKARGUZ
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

BARIETATE HAUNDIA INTEGRALETAN:
OJALDREZKO PALMERAK
KURASAN ZEREALDUNA
MADALENAK
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

sulabe
ETA ASKOZ GEHIAGO !!
Lizeaga I (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25
HERNANI

MAC'S KEBAB
KEBAB, OILASKOA, PÜRÜM (ROLITOK), PIZZAK, ENTSALADAK, FALAFEL eta HAINBAT PLATERA
Bertan jan edota Etxera eramateko

Larremendi 17, behe Tel.: 655 40 58 69

YOLANDA *estetika zentrua*

Fotodepilazio berria
Gaztetze tratamendua Argi bidez
Antiakne tratamendua
Azal mantxak
Plataforma bibratzailea
ZORIONAK eta URTE BERRI ON !!
Prezio egokituak eta pertsonalizatuak
estetica@yolanda.infonegocio.com ATZIETA 2, behea. Tfnoa: 943 55 32 78.

Euskal selekzioaren aldeko aldarrikapenarekin bat egin dute Hernaniko hainbat kirolarik

Gaur manifestazioa izango da Bilbon, eta Hernaniko Bai Euskal Herriari taldeak ere joateko deia egin du.

GAUR Euskal Herriko Selekzioaren eta Euskal Herriko Federazioaren aldeko manifestazioa izango da Bilbon, eta Hernaniko Bai Euskal Herriari ekimenak eta herriko hainbat kirolarik deialdia-ekin bat egin dute.

Bai Euskal Herriari ekimeneko kideek adierazi dute «askotan uste ez den tokitik etortzen direla konprometuzak. Zeinek ez du ustekabean hartu lehenik 165 futbolarik eta ondoren 860 kirolarik egindako adierazpenak». Horrekin batera adierazi nahi izan dute bukatu direla «pro-

mesa faltsuak, eta zatiketa interesatuak. Euskal Herriko selekzioak bide berri bati ekin dio, mugarik izango ez duen bidea».

Bukatzeko, gaur Bilbon izango den manifestazioarako hitzordua gogorarazi dute Bai Euskal Herriari ekimeneko kideek, «dei egiten dugu gaur Bilbon izango den manifestaldi nazionalera. Euskal Herriko federazioa! . Euskal Herriko selekzioa!». Manifestazioa arratsaldeko 17:30etan, abiatuko da Bilboko Aita Donostia plazatik. ■



❖ AMHER

Mugetan hil diren pertsonak gogoratzeko kontzentrazioa

Amher-Sos Arrazakeria taldeak deialdia egin du astearteko, Donostian. Kontzentrazioa izango da mugetan hil diren pertsonak gogoratzeko. Gipuzkoa plazan, arratsaldeko 19:30etan. ■

❖ ANTZERKIA

Galtzagorriak Txotxongillo emanaldia astelehenean

Euskal mitologiako Galtzagorriak izango dira astelehenean Biterin, Txotxongillo taldearen eskutik. J.M. Barandiaranen jasotako ipui baten moldaera da astelehenean eskainiko duten antzerkia. Arratsaldeko 17:00etan, Biterin. ■

❖ PORTU AUZO ELKARTEA

Errealari buruzko tertulia eta joko tailerra auzoan

Portu auzoan Gabonen bueltan ekintza ezberdinak antolatu ditu bertako auzo elkarteak. Asteartean Errealari buruzko tertulia izango da, arratsaldeko 19:30etan, auzo elkartearen bulegoan. Urtarrilaren 2an, joko taile-

rra eta merendola izango da haurrentzat. Arratsaldeko 17:30etan, lokalean. ■

❖ ZAHARREN EGOITZA

Puntto txapelketa gaur

Gabonen bueltako egitarauari jarraituta, gaur puntto txapelketa izango da Zaharren Egoitzan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Etzi tokan ariko dira, ordu berean hasita. ■

❖ MUS TXAPELKETAK

Mus azkarra gaur Anboto tabernan

Orkolaga auzoko Anboto tabernan mus azkarra izango da gaur. Izena arratsaldeko 15:30ak aurretik eman behar da. Bestalde Santo Tomaseta errifako zenbaki saritua 1132 zenbakia da. Saria duenak gaur du azken eguna urdaiazpikoa jasotzeko. ■

❖ AAM

Langraitzera martxa

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak presoen aldeko hainbat ekimen antolatu ditu urte bukaera honetan. Bihar Langraitzera martxa egingo dute eta goizeko 09:00etan egin dute hitzordua Atsegindegian. Urte zahar egunean,

Martuteneko espetxera joango dira. Goizeko 11:00etan egin dute zita Astigarragan (Gruas Alonso) eta eguerdiko 12:00etan Martutenen. ■

❖ BERRIAK

Errege kabalgatako trajeak banatuko dituzte asteartean

Errege kabalgata izango da urtarilaren 5ean. Berriak elkarteak kabalgatan parte hartu nahi duten haurrei trajeak banatuko dizkie, datorren asteartean. Arratsaldeko 18:00etan, Biterin. ■

❖ ABESBATZA

‘Libera Cantoria Pisani’ Italiako abesbatzaren kontzertua, Milagrosan

Italiako *Libera Cantoria Pisani* abesbatza izango da Hernanin urtarilaren 2an. Kantuz abesbatzak antolatu du kontzertua, izan ere, abesbatza italiarrarekin interkanbioa egingo du: Gabonetan haiek etorriko dira hona eta Pazko astean Kantuzeko kideak joango dira hara. Italiako iparrekialdeko kantuekin osatutako erreperitorioa eskainiko dute, gaur egungo kantuekin. Urtarrilaren 2an, ostiralean, arratsaldeko 19:30etan, Milagrosan. ■

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

Orain inoiz baino merkeago !!
Zatoz gure prezioak ikustera !!

Ezin hobeak !!

(existentziak bukatu arte)

ZANUSSI
ZWF682

~~349€~~
orain **314€**

EVE: -105€

Azken prezioa: 209€

Fuzzy kontrol elektronikoa
Hydrosystem teknologia
21 programa



ZANUSSI
ZK-34/11 F6

~~549€~~
orain **494€**

EVE: -85€
Azken prezioa: 409€

Kapazitate totala: 340 L
Kapazitate utila: 245 L
Dynamic power NF



KULTUR ETA KIROL AZPIEGITURAK-PROZESU PARTEHARTZAILEA

Udalak eztabaidarako proposamen bat jarriko du mahai gainean

Udalak azterketa bat eskatu du herrian azpiegitura aldetik dauden premiak ikusteko. Azterketan proposamen bat agertzen da, herrian azpiegitura aldetik dauden beharrei erantzuna eman nahi diena.

BITERI kultur etxea txiki geratu dela, igerileku estalian jende mordoa pilatzen dela, Musika Eskolan plaza gutxi daudela.... eta halakoa entzun izan dira azken urteetan. Mota honetako kezkei erantzuna emateko asmoz 2009an eztabaida prozesu bat hasi nahi du Udalak herritar, talde eta eragile ezberdinekin. Prozesu horretan gaur egun dauden azpiegituren egoera aztertu nahi da, eta etorkizunera begira, zein azpiegitura beharko lirakekeen denen artean adostu. Bileraren honen faseak eta datak oraindik ere ez daude zehaztuta, baina asmoa da 2009an zehar egitea bilerak.

Bileraren hauetan azpiegitura aldetik dauden beharrak jaso, lehentasunak markatu eta aurrera egiteko bideak zehaztu nahi ditu Udalak.

Azterketa eta proposamena

Udalak orain arte antzeman dituen beharren inguruko azterketa bat osatu du. Azterketan gaur egun herrian dauden azpiegituren egoeraz hitz egiten da (liburutegia, Musika Eskola, Biteri, kiroldegia, igerileku itxiak...) eta dauden beharrei erantzuna emateko, aukera ezberdinak mahai gainean jartzen ditu. Azken atalean, proposamen bat hobesten da beste artean, ondoko laukian azaltzen dena. Udalak, garbi utzi nahi izan du, proposamen bat besterik ez dela, azpiegiturak kokatzearako garaian eta herriak ematen dituen aukeraz aztertzerako garaian, nonbaitetik abiatzeko.

Kudeatuz programa

Azpiegituren inguruko parte hartze prozesu hau Kudeatuz programaren barruan dago, Diputazioak eta Eudelek sustatu dutena, eta parte hartzea bultzatzea helburu duena. Beste proiektu bat ere badago Kudeatuz programaren barruan, herrian dauden adinekoentzako zerbitzuen ebaluazioa egitea, herritarren iritzia jasota. Bi proiektu horiek gauzatzeko Udalak 100.000 euroko diru laguntza jasoko du. II

Urbietan kalean eraikin berria, Musika Eskola, auditorioa eta liburutegiarekin

AZPIEGITUREN eztabaidaren bueltan eskatutako azterketan, herrian gaur egun dauden kultur eta kirol azpiegituren diagnosia egiten da: Biteri kultur etxea, Udal liburutegia, Musika Eskola eta kiroldegia egoerarena, hain zuzen. Aipatutako guzti horietan dauden premiak identifikatzen dira:

• **Biteriri** dagokionean, besteak beste, aipatzen da, ikastaro berriak emateko leku nahikorik ez dagoela, areto

nagusiak ez duela ikusle nahikorentzako lekurik, eta aretoak antzerki eta musika emanaldietarako ez dituela baldintzak betetzen.

• **Liburutegiari** buruz dio, Hernani bezalako herri batek 1.163 m²ko liburutegia behar lukeela, beraz gaur egun dagoena txikitxo dela. Horrez gain, azterketan ez da egoki ikusten liburutegia pisu bat baino gehiagotan sakabnatuta egotea.

• **Musika Eskola** txiki ge-

ratu dela ere aipatzen da azterketan, eta horrez gain, bentalazio, argiztapen eta soinu arazoak daudela.

• **Kiroldegia**ren kasuan esaten da, kiroldegia nahikoa dela gaur egun dagoen eskarientzat, baina igerileku estalia txiki geratu dela aipatzen da. Arazoa aspaldikoa dela ere esaten da azterketan, eta horren seinale da, igerileku estalia haunditzeko oinarritzko proiektua eskatu zela bere garaian.

Beharrak antzemanda, az-

terketan esaten da, herri erdigunea behar duela izan azpiegitura hauek zabaltzeko gunea, herritarrek bertara iristeko arazorik izan ez dezaten. Eta ikusita, aurretik aipatutako eraikin horiek haunditzeko aukerarik ez dagoela, herri erdigunean dauden udal lurrak proposatzen dira eraikin berriak egiteko.

Dauden aukera ezberdinak aztertu ondoren, honako proposamen hau hobesten da azterketan:



Biteri kultur etxean, liburutegia eta aretoa kenduko lirakeke eta kultur etxe osoa tailer, bilera eta bestelako geletarako utziko litzateke. Gaur egun daudenak baino gela haundiagoak eraikiko lirakeke.



Urbietan kalean eraikin berria eraikitzea proposatzen da. Udal liburutegi berria, 300-400 ikusleentzako emanaldi aretoa, eta Musika Eskola bertara eramatea proposatzen da.



Kiroldegiko igerilekua, haunditzea proposatzen da. Aurretik zegoen proiektuan aurreikusten zen Latsunbe aldera haunditzea, baina azterketa honek proposatzen du igerilekua gradak dauden aldera zabaltzea.



Villa Manolitako terrenoan, estalitako kirol pistak eraikitzea proposatzen da. Kiroldegia ondoan dagoenez, bertako bildegia, dutxak, aldagelak, materiala eta bestelakoak erabiltzeko aukera izango litzateke.

GASANGREB Hernaniko talde gaztea lau mutilek osatzen dute, eta hauetako batzuk *Valium Generation* eta *Geriatric Youth* taldeetatik datoz. Martxoaz geroztik daude batera, baina

iada kontzertu batzuk hitzartuta dituzte eta lan egiteko gogoz daude, «poliki-poliki aurrera egiteko gogo haundiarekin» beraien esanetan.

GASANGREB TALDEA:

«Oraingoz entsaiatzen ibili gara eta gure lehen kontzertua urte zahar gauean emango dugu»

Ane Lujanbio

Zergatik zarete Gasangreb?

Talde danes batek *Gasangreb* izeneko kanta bat dauka bere disko batean (*No hore for the kids*), eta hitz hori aukeratu genuen, arrazoi berezirik gabe. *Gasangreb* hitza erdi danesa da eta bere esanahia *atentatuak gasarekin* da. Danimarkako talde honen letrak oso pesimistak dira eta kantetan gerrako ezaugarri asko aurkitu daitezke, garra-siak, eta abar.

Nola hasi zineten? Noiztik zabiltzate?

Lehendik ezagutzen genuen elkar, kontzertuetatik, eta abar, eta oraingoa kasualitatea izan zen. *Mau* hasi zen mugitzen, eta *Iru* eta *lñigito*-ri komentatu eta elkartu egin ginen. Eta gero, Aitorri esan eta bera ere etorri zen. Denak, Aste Santuan batu ginen, eta ordutik ari gara lanean. Musikak batzen gaitu, eta taldean egiten dugunetik aparte, gutako bakoitza musikaren inguruan lanean ibili da edo oraindik badabil. *Mau*, esate baterako, *Mogambo* aretoan kontzertuak antolatzen ibilia da. *lñigito*k, berriz, Molotoff irratiko 008 musika saioa egiten du. Kontua da, denok musikaren inguruan mugitzen garela.

Zer jotzen du zuetako bakoitzak?

Aitorrek bateria jotzen du, *Mau*k gitarra, *Iruk*ok baxua, eta *lñigito*k, berriz, abestu egiten du.

Non ensaiatzen duzue? Astean zenbatetan biltzen zarete?

Udaletxeak utzitako Floridako lokaletan biltzen gara, eta ahal badugu egunero geratzen gara ensaiatzeko. Taldea hasi berria



Gasangreb Hernaniko taldea lokalean sartuta ibili da azken hilabeteetan, abestiak eta kontzertuak prestatzen.

denez, ordu asko sartu behar dira.

Zein da zuen estiloa?

Esango genuke guk punk eta rock oso agresiboa egiten dugula. Ez da hardcore-a guztiz, baina badu hardcore-aren amorrua. 70. hamarkadan egiten zen estilo bat litzake gurea.

Ze gai dute zuen letrak?

Gure letrak, letra pertsonalak dira. Eta ez dira oso ebidentek, bakoitzak letra hori bere modura ulertzeko eta berare-

Esango nuke guk punk eta rock oso agresiboa egiten dugula. Ez da hardcorea guztiz, baina badu hardcorearen amorrua. 70. hamarkadan egiten zen estilo bat litzateke gurea

an identifikatzeko balio dute. Adibidez, ideia bat zuzenean esan beharrean, ideia hori elar-

boratzen dugu.

Zein hizkuntzatan kantatzen duzue?

Ingelesezt kantatzen dugu. Letrak sortzen dituen, printzipioz *lñigito* da. Denon artean, taldea ingelesezkoa izatea erabaki genuen. Hala ere, batzutan pentsatu izan dugu euskarazko kantak sortzea, baina zaila izaten da euskaraz ondo egitea, gure ustez ez da horren erraza. Euskara ez da ingelesa bezain hizkuntza melodikoa, eta askotan erraza-

goa da adibidez, ingelesez errimatzea. Baina ez dugu ingelesez kantatzen ez modagatik, ez fama bilatzeagatik. Besterik gabe, guk entzuten ditugun taldeak anglosajoiak direlako; ingelesak, amerikarrak, australiarrak, kanadiarrak..., orduan, batez ere eragin horregatik. Baina zeinek daki. Agian aurrerago animatuko gara hizkuntzaz aldatzera. Badaude ingelesez hasten diren taldeak, eta gero gazte-lara pasatzen direnak. Donostiako *PlanB* izeneko taldea,

adibidez, horietako talde bat da, eta bukaeran beti gaztele-raz egiten zuen. Igual, talde askok ingelesezko taldeen eragina daukate, eta ingelesez hasi eta poliki poliki konturazten dira pertsonalago geratzen dela euskeraz edo gaztele-raz kantatzea.

Zenbat kanta dituzue?

9 edo 10 bat kanta propio ditugu, eta horietaz aparte, beste musika taldeen kanten bertsioak egiten ditugu. Orain, lokalean egoten garen denbora gehiena, kontzertuak prestatzeko erabiltzen dugu.

Eman al duzue kontzerturik herrian?

Oraindik entsaiatzen bakarrik egon gara, eta gure lehen kontzertua hilaren 31an izango da, Loiolako Gaztetxean, gaueko 00:30etan. Kontzertua *Punkillon* gauaren barruan antolatu da, gau horretan izaten diren kotilloien alternatiba bezala. Joko dugun taldeak *EH Sub* eta gu izango gara, eta honez gain, *DJ Nokono* ere han izango da. Urte Zaharreko gau hori edozeinentzat dohainik izango da. *EH Sub* ere Hernaniko beste talde bat da, eta bertan, Afoniako bik jotzen dute, eta bereziki, kontzertu horretarako bilduko dira. Loiolako kontzertuaz aparte, badauzkagu beste kontzertu pare bat. Urte berria hasteko, urtarilaren 10ean, Donostiako Irrati Libre bakarrak, Egiako Kultur Etxean, antolatu duen kontzertu batean joko dugu, irratia errentzat dirua biltzeko, beste hiru edo lau talderekin joko dugu. Eta bestalde, otsailaren 12an Donostiako Konplot lokalean joko dugu, Irungo eskola grafikoko ikasleek, ikasbidaia egiteko antolatu duten festaren barruan.

Gazte Sarearen aurtengo Musika Gidan azalduta, jendeak gehiago deituko dizuela pentsatzen duzue?

Gure ustez, kontzertu batzuk eman ondoren, kontzertuak antolatzen dabilen pertsonak errazago jakingo du nor garen, eta Musika Gidan ikusten bagaitu, ezagutu egingo gaitu eta horrela baliteke jende gehiegok deitzea.

Gure lehen kontzertua hilaren 31n izango da, urte zahar gauean, Loiolako Gaztetxean. Kontzertua *Punkillon* gauaren barruan antolatu da, gau horretan izaten diren kotilloien alternatiba bezala

Egin nahi genukeen gauzetako bat da grabazioen bat kaleratzea. Ibili garen beste taldeetan ez dugu aukera hori izan



Etorkizunerako ze asmo duzue?

Talde honetan egin nahiko genukeen gauzetako bat zera da, grabazioen bat kaleratzea. Ibili garen beste taldeetan ez dugu aukera hori izan, eta *Gasangrebek* bere kanten grabazio bat eduki eta hori kaleratzea gustatuko litzaiguke.

Ze giro dago taldean?

Gure artean oso ondo moldatzen gara, eta bakoitzak, den bezalakoa izanda, bere izaeratik zerbait aportatzen die besteiei eta taldeari. Aitor, bateria adibidez, *kaña* sartzen duen horietakoa da. *Irukok*, berriaz, lasaiagoa denez, hankak lurrean jartzen laguntzen digu denoi, gure burua deszentratzen denean. Ondo datorkigun gauza bat da bakoitzak izaera desberdina edukitzea. ||

Hernaniko musika taldeak Gaztesareak argitaratu berri duen MUSIKAGIDA 09-an

Gabonetarako opari polita izan daiteke jarraian aurkezten dizuegun Gida. Musika Gida bat da, eta bertan Euskal Herri osoko musika talde gazte eta berriak biltzen dira.

EUSKAL Herriko gazteak betidanik izan dira musikazaleak eta musikagileak. Orain ere, gazteek horretan segitzen dute. Baina sortzaile berri askok ez dute aukera haundirik beren lana ezagutarazteko. Beraz, talde hauen berri emateko helburuarekin sortu zen Musika Gidaren ideia. Gida honen helburuetako bat hori da, kontzertuak antolatzerako orduan, gure artean zein euskal talde dauden jakiteko, nora jo edukitzea.

Gazte Sareak, gazteek gazteentzat sortutako komunikazio proiektuak kaleratu du Musika Gida. Eta aurtengoa, Durangoko Azoka burutzen den egunetarako argitaratu zen, abenduaren hasieran hain zuzen ere.

Hau horrela izanda, ez dira gutxi aurtengoan Gidan aurki ditzakegun taldeak, 350 musika talderen berri ematen baita, guztira. Bertan, talde bakoitzaren izena, herria, historia, taldekideak, diskografia eta kontaktuak ageri dira.

Egiturari dagokionez, gidako informazioa modu ordenatuan eta errazean dago antolatuta. Taldeen informazioaz gain bi CD ere aurki daitezke gidako talde guztien abestiekin, erreportaje bat ere badauka, eta baita kontaktu ezberdinen zerrenda, laguntzaileena eta talde batzuen argazkiak ere bai. Talde jakin baten bilaketa errazagoa izan dadin, hauek probintziak daude banatuta, denera zazpi pro-

bintzian.

Gauza jakina da gure herrian ohitura haundia izan dela eta oraindik badela musika taldeak sortu eta aurrera eramateko. Eta ohitura honen erakusgarrietako

batzuk dira Musika Gidan azaltzen diren herriko bi musika talde: *Afonia* eta *Gasanbreg*.

Musika Gida Hernanin, Goiz Argi tabernan jarri dute salgai.



ERAKUSKETA BERRIA



LANTEGIA:

Florida 56,
1. solairua,
25 B lokala
HERNANI



ERAKUSKETA:

Perkaiztegi 10W
Antziola
HERNANI
☎ 943 55 06 88

SUKALDE ETA KOMUNEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
ELEKTROGAILUAK
MAHAI ETA AULKIAK
GREMOIEN KOORDINAZIOA



Aristregi Sukaldeak 30 urte daramazki Hernanin altzariak egiten. Orain denda berria zabalik du eta bertan, sukaldeko altzariak gain, komuneko altzariak, armairu enpotratuak, elektrogailuak... aurkituko dituzue. antziola auzoko Perkaiztegi kalea 10W zenbakian hartuko zaituztegu.

BURUNTZALDEKO PELOTA JAIALDIA BIHAR - Buruntzape teknifikazio taldea.

«Azken hamar urteetan pelotaren inguruko mugimendua asko igo da eskualdean, eta hori sustatu eta azaleratu nahi dugu biharko pelota jaialdiarekin»

BIHAR Buruntzaldeko sei herrietan, tartean Hernanin, pelota jaialdia izango da, Buruntzape teknifikazio taldeak antolatuta. Oier Mendizabal da bertako koordinatzaileetako bat, baita Andoni Albarez ere. Haiekin hitz egin dugu duela bi urte sortu zen talde honen berri jakiteko eta biharko jaialdiaren inguruan gehiago jakiteko.

Lehenik eta behin, zein da Buruntzape teknifikazio taldeak egiten duen lana?

Buruntzape elkarte bat eta bertan parte hartzen dute Buruntzaldeko sei herrietako pelota eskolek. Gu Buruntzapeko kideak gara, baina aldi berean Andoaingo pelota eskolako arduradunak gara.

Buruntzapek egiten duena da, pelota eskolen lana osatzeta. Esate baterako, pentsa dezagun Hernanin jubencil mailan bi jokalarik on daudela eta horiek entrenamendu fuertea egiteko Añorga edo beste klub batzuetara joan behar izaten zuten lehen. Pentsatu genuen ideia ona izan zitekeela Buruntzaldeko sei elkarteetan maila haundiena zuten pelotariak elkartzea. Helburua da pelotari horien maila igozea eta hartara, pelotari horiek beren klubean geratzeko aukera izango dute. Lan hau kurtsoan zehar egiten dugu. Uztailean abuztuaren klubak funtzionamenduan ez daudenean, guk entrenatzeko aukera eskaintzen dugu. Udako entrenamendu hauek irekiak dira eta maila altuko zein bestelako pelotariak har dezakete parte.

Duela bi urte hasi ginen lan hau egiten.

Zenbat pelotariarekin aritzen zarete lanean entrenamendu osagarri horietan? Hernaniko zein pelotariarekin ari zerate lanean? Urtean zehar 25 pelotariarekin ari gara lanean, eta udan 70 bat pelotariarekin. Kadete, jubencil



Oier Mendizabal eta Andoni Albarez.

eta nagusi mailakoekin aritzen gara, hor dagoelako gabezia. Benjamin, alebin eta infantil mailan gabeziarik ez dagoela ikusi dugu, herri bakoitzean dagoenarekin maila horretan moldatzen dira.

Hernaniko pelotari hauek

dabiltza gurekin entrenatzen: kadeteetan dabiltza, Aritz Murgiondo, Eneko Lujanbio eta Ander Lopez; jubencil mailan, Eneko Azpitarte, Markel Lizaga eta Aritz Otaegi; nagusitan, Aitor Gorrotxategi, Paul Ojuel, Ioritz Arrieta eta Ioritz

San Sebastian.

Hernanin badaude beraz zaindu beharreko pelotariak.

Hernani maila gehien duen kluba da Buruntzaldean. Gurekin entrenatzen duten pelotariaren herena Hernaniko klube-tik datoz.

Zeintzuk dira bihar izango den pelota jaialdiaren helburua? Zuen lana ezaguraztea?

Ez hori bakarrik. Herri arteko pelota txapelketa da txapelketa garrantzitsua, eta duela 10 urte, ezinezkoa zen pentsatzea eskualdeko herri guztiek herri artekoan parte hartuko zutenik. Kasu batzuetan ez zegoen pelotari nahikorik eta pelota eskolarik ere ez zegoen beste batzuetan. Azkeneko herri artekoan Buruntzaldeko sei herriek hartu zuten parte. Hor ikusten da, herri hauetan pelota giroa badagoela eta azken 10 urteetan asko igo dela. Hernanin agian, betidanik izan da pelota tradizioa, Usurbilen ere bai, baina Andoaingo duela 10 urte edo sortu da mugimendua.

Gaur egun badago pelota eskola, badaude pelotariak, badago maila eta badago giroa. Giro hori kontuan hartuta, eta hori sustatzeko, jaialdi bat egitea ideia ona iruditu zitzaigun.

Jaialdia antolatzeke laguntza jaso duzue ezta? Ez zarete zuek bakarrik aritu.

Bai, eskerrak eman nahi dizkie-

gu Udalei biharko jaialdiaren inguruan eman diguten laguntzarengatik. Eta urtean zehar laguntza ematen diguten Diputazioa, Bankoa, Ibai mendidenda, Otsua-enea sagardotegia, Olmaza ardoak eta Arano igeltseritzari.

Oier Mendizabali galdetu nahi genioke, ez Buruntzapeko koordinatzaile den aldetik, baizik eta pelotari profesionala den aldetik. Nola ikusten duzu zure burua bihar Hernanin jokatu behar duzun partidurako?

Agian ez nago nere momentu onenean. Eskuarekin arazoak izan ditut eta orain hasi naiz jokatzeko. Erritmo pixka bat hartzea falta zait, baina partiduz partidu joango naiz hartzen. Astelehenean Tolosan jokaturako partiduan ez nuen itxura oso ona eman, baina behintzat aurrekoan baino hobeto aritu nintzen. Eskutik errekuaratu nintzenetik hiru partiduko jokatu ditut eta biharko laugarrena izango da.

Zeintzuk dira denboraldi honetarako dituzun helburuak?

Orain parejetako txapelketa jokatzeko da eta hor egotea da nere urteko helburu nagusia. Txapelketa urtarrian hasiko da, zaila da hor egotea, baina kontuan hartu behar da lesio batetik natorrela, eta pixkanaka pixkanaka hartzen ari naizela. Hala ere, erabakia Asegarceren esku dago eta aurkezpenaren bezpera arte ez da jakiten. II

Eskualdeko pelotari gazteak, eta Oier Mendizabal eta Aimar Olaizola bikote txapelduna, jokoan ikusteko aukera izango da bihar pelota jaialdian

PLAN ederra jarri du biharko Buruntzape teknifikazio taldeak, eskualdeko udalen eta pelota klubaren laguntzarekin. Hernanin, Lasarten, Usurbilen, Astigarragan, Andoaingo eta Urnietan pelota mugimendua sustatzeko jaialdia izango baita bihar sei herrietan eta batez ere Hernanin. Goizean sei herrietako klubetako pelotariaren partiduko izango dira eta guztira 500 bat gazteko beteko dituzte sei herrietako fron-

toiak. Hernanin infantil mailko jokalariek ariko dira. Eguerdian bazkaltzera joango dira, Otsua-enea sagardotegira.

Arratsaldean profesional mailako partiduko jokaturako dira Hernaniko kiroldegian. Sarrerak salgai daude Carrero, Oinddi eta Ibaimendin: 30 eurotan partiduko eserita ikusteko eta 15 eurotan zutik ikusteko. Bihar frontian bertan ere jarriko dituzte sarrerak salgai.

► *Biharko jaialdiko egitaraua:*

10:00: Buruntzaldeko pelota klubetako pelotariaren partiduko. Hernanin infantilak, Astigarragan kadeteak, Urnietan seniorrak, Usurbilen jubencilak eta Andoaingo benjaminak.

14:00: Pelotazale eta pelotariaren herri bazkaria Otsua-enea sagardotegian.

17:00: Profesional mailako pelota partiduko, kiroldegiko frontoian:

Saralegi-Oteiza /Mendizabal-Argote.

Olaizola II-Mendizabal II/Berasaluze VIII-Beloki

Sarrerak: 15 euro zutik; 30 eserita.

◆ FUTBOLA - Gorengo maila

Urteko azken partidua jokatuko du gaur Hernanik

Partidua Pasajesen aurka jokatuko du gaur, 17:00etan

URTEARI amaiera bikaina emateko aukera izango du gaur Gorengo mailako taldeak. Gaurko partidua etxetik kanpo jokatuko du, Pasajesen aurka; eta alde zuzenetik begiratuta, badirudi partidu ber-

dindua izango dela. Aurreko partiduan garaipena lortu zuten bi taldeek, eta sailkapen nagusian puntu bateko aldea besterik ez dute; nahiz eta hernaniarrak aurretik dauden.

Txuri berdeek, gaur iraba-

ziz gero, ligako lehen itzulia goi postuetan amaitzeko aukera bikaina izango dute; sailkapenean lehenengoa, Hondarribia, lau puntura baitute. Partidua gaur, 17:00etan, Pasaian. ||

◆ TENISA

Maider Martinek infatil mailako Master Nazionala irabazi du

Txapelketa abenduaren 8tik 12ra jokatu zen, Zaragozan.

MAIDER Martin tenista hernaniarra Espainiako txapelduna da, infantil mailako Master Nazionala irabazi ondoren, hilaren 12an, Zaragozan.

Txapeldun izateko, Maiderrek, guztira lau partidu jokatu behar izan zituen, eta azkena, garrantzitsuenak, Silvia Garcia madrildarraren aurka. Maiderren esanetan «lehenengo set-a izan zen zailena, gogorra, baina 7-6 irabaztea lortu nuen. Bigarrena berriz, errezago irabazi nuen, 6-3».

Master Nazionala irabazita, urtea ezin hobeto amaitu du Maiderrek, denboraldi oso ona egin eta gero; Espainiako beste txapelketa batean bigarren izan zen, eta beste hainbat zirkuitu eta masterretan ere oso emaitza onak lortu ditu. Hurrengo txapelketa otsailean jokatuko du. ||



Datorren urtean kadete mailako lehenengo mailan jokatuko du.

◆ PALETA

Bi bikote hernaniarrek paletako finala jokatuko dute gaur, jubenil mailan

Pagola eta Ugaldek Irazustabarrena eta Gutierrezen aurka jokatuko dute gaur paletako finala. Bi bikoteak hernaniarrak dira eta jubenil mailan jokatzen dute. Pagola eta Ugalde izango dira faboritoak, eta partidua gaur, 16:00etan hasiko den jaialdiko bigarren izango da, Hernaniko kiroldegian. Hala ere, lehenengo partiduan ere bi pelotari hernaniar izango dira; Tijero eta Lukas Azpetiako Ikasberriren aurka. Partiduan Gipuzkoako txapelketako hirugarren eta laugarren postua jokatuko dute. ||



◆ ARRAUNA

Hernaniko Arraun Elkarteko bi batel 5garren eta 7garren

Joan den larunbatean Kontxako badian denboraldi lehen estropada jokatu zen eta Hernaniko Arraun Elkarteko infantil mailako bi batelek 5garren eta 7garren postuak lortu zituzten. Irabazlea Getaria izan zen. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I URTEURRENA ARANTZA IDIGORAS SANTANA

Zure oroimena
beti izango da
gure bihotzetan

Familia

Urteurreneko meza, **GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko 19:00etan**, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin 2008ko abenduaren 27an



ARANTZA IDIGORAS SANTANA

Urtebete da, oraintxe eta ze hutsunea benetan, non ote zauden gure buruai galdezka gaude honetan, izar berri bat piztu omen da gaineko sabai horretan, bere argia zure islada degu amona gauetan.

Maddi eta Etxahun



KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Gorengo maila	Pasajes-Hernani	Don Boscon	Gaur 17:00
ERREMONTEA			
Matxin VI-Olazar/Zulaika-Etxezabal	Galarretan	Gaur 16:00	
Urriza-Eizagire/Altuna II-Agirrezabala	Galarretan	Gaur 16:00	
Uterga-Triarte/Agirresarobe-Etxeberria III	Galarretan	Gaur 16:00	
Bereziartua-Aizpurua II/Etxeberria IV-Ion	Galarretan	Gaur 16:00	
PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa			
Paleta	Tijero-Lukas/Ikasberri Azpetia	Gaur 16:00	
Paleta	Pagola-Ugalde/Irazustabarrena-Gutierrez	Gaur 16:00	
Kadeteak	Urkizu/Oiarpe	Iruran	Gaur 13:30

Kadeteak	Otaegi/Oiarpe	Iruran	Gaur 13:30
Kadeteak	Murgiondo/Mundarro	Iruran	Gaur 13:30
Kadeteak	Etxenike/Alde Zaharra	Iruran	Bihar 09:30
Kadeteak	Etxegoien/Oiarpe	Iruran	Bihar 09:30
Jubenilak	Sanbo/Oiarpe	Donostian	Gaur 15:00
Jubenilak	Aizpitarte/Alde Zaharra	Donostian	Gaur 15:00
Seniorrak	Zurutza/Oiarpe	Iruran	Gaur 14:00
Seniorrak	Grajal/Oiarpe	Iruran	Gaur 14:00
Seniorrak	Bilbao/Usurbil	Iruran	Bihar 09:30
Seniorrak	Esnola/Behar Zana	Iruran	Bihar 09:30

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20



www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA


TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
+ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR
Goizean euria egingo duen arren, orduak aurrera joan ahala hobera egingo du. Temperatura maximoa 10 °C eta minimoa 4 °C.

BIHAR
Aterri izango da bihar ere eta kostara gerturatuz gero ostarte zabalak izango dira. Tenperaturak gora egingo du. Maximoak 13 °C eta minimoak 6 °C.

(euskalmet)



Azagran bazkaldu zuten, ederki asko gainera.

Nafarroa aldean ibili dira Goiz Eguzkiko kideak abenduan

GOIZ Eguzki jubilatutako etxeko kideak Nafarroa aldean izan dira, abenduan egin duten azken irteeran. Abenduaren 13an abiatu ziren eta Lodosan egin zuten lehen geldialdia, bertako kontserba fabrikak

ezagutzeko, eta ondoren inguruko bodega bat bisitatzeko. Azagran bazkaldu zuten, eta bazkalostean, bingoa jokatu eta opariak banatu zituzten. Bazkaria jeistean, dantza saioa egin zuten, eta

nahiz eta hotza egin, giroa bero mantendu zuten.

Bulegoa itxita

Gabonak direla eta Goiz Eguzkiko bulegoa ez dute irekiko urtarilaren 7ra arte. II

❖ ITURRITXO AUZO ELKARTEA

Haur txokoa astelehen eta asteartean

Latsunbe Berri eta Marieluts auzotako elkarteak haur txokoa antolatu du datorren astelehen eta astearterako. 6 eta 12 urte arteko haurrentzako jolasak eta eskulanak izango dira. Goizeko 10:30etatik 13:00etara, Iturritxo auzo elkartearen lokalean, Latsunbe Berrin. II

❖ ASTIGARRAGA

'Made in Jabon' haurrentzako ikuskizuna gaur

Haurrentzako *Made in Jabon* ikuskizuna izango da gaur Astigarragako kultur etxean. Musika, umorea eta jaboi burbuja erraldoiak izango dira ikuskizuneko protagonistak. Sarrera, 2,50 euro. Arratsaldeko 17:30etan, Astigarragako kultur etxean. Sarrerak emanaldia baino ordu bete lehenago jarriko dituzte salgai. II

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensorea, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

oso berezia den opariaren bila bazabiltza, zatoz gurera!

Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista, 12.244 zkia. R.P.S. 174/06

ERABILI EZAZU BERRIAK TXARTELA

JANTZI DENDA

AMBOTO

URTARRILAREN 5EAN

ATEAK ITXIKO DITUGU

ESKERRIK ASKO GUGAN KONFIDANTZA JARRI
ETA BEZERO IZAN ZARETEN GUZTIEI.

Nagusia 43 *Amboto Jantzi denda* *Hernani*